

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Milagros Eriz Otadui

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1918)*

Aurkibidea



Biografia



Ferrerias kalean jaio zen, hiru ahizpatatik zaharrena. Aita Santa Ageda auzoko Imendi baserriko zen, igeltseroa bera, eta ama Arrasatekoa. Lau urterekin hasita Merzedaria mojen eskolaurrean ikasi zuen, euskaraz. Hamarrekin Viteri eskolara pasatu zen, eta bertan erdaraz ikasi zuen hamabost urtera arte. Gero josten ikasi zuen. 1935. urtean aitag berak San Franzisko kalean eraiki zuen etxe batera joan ziren bizitzera. Bertan, ortuaz gain, txerria eta hegaztiak ere zaindu zituzten. Etxe hori mendiaren babesean zegoen, zorionez, eta gerran jaurti zituzten bonbak etxetik urrun lehertzen ziren; beraz, euren etxea osorik geratu zen. 1994. urtean etxea bota eta bertan pilotalekua eraiki zuten. Arrasateko Jesus Balanzategirekin ezkondu zen. Seme-alaba bi izan zituzten.

Zintak

ARR-149

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-07
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Jolasak: txirikiletan, diez-beinteka...

- **Erref:** ARR-149/003
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:03:26. **Bukatu:** 00:06:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Ume garaian, sokasaltoan, txirikiletan, diabolarekin, "al corro de la patata", "anboato", tortolasetan, diez-beinteka... egin ohi zuten jolas.

2. Elizako ospakizunak

- **Erref:** ARR-149/004
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:06:07. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Egunero, arrosarioa egoten zen zazpian. Eliz giroko hainbat ospakizun aipatzen ditu: 'Hora Santa', maiatzeko Hijas de María, nobenak, Ama Doloretakoa...</p>

3. Errekara, zapaburuak batzera

- **Erref:** ARR-149/008
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:08:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Aramaio aldetik etortzen zen errekak gaur egun baino ur gehiago izaten zuen. Mutilak bainatu egiten ziren; neskak hankak bakarrik sartu ohi zituzten uretan, zapaburuak batzeko. San Agustin kaleko garbitoki eta putzu inguruan bainatu ohi ziren mutilak. Neskak, berriz, hiltegi aldera joaten ziren.

4. San Agustin kaleko garbitokia

- **Erref:** ARR-149/011
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:09:53. **Bukatu:** 00:11:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

15 urterekin utzi zituen ikasketak. Etxeko lanetan amari laguntzen zion. San Agustin kaleko garbitokira joaten zen arropak garbitzera. Herrian hiru garbitoki zeuden. Jende asko biltzen zen garbitokian; hango giroa nolakoa izaten zen azaltzen du.

5. Joskintza ikasten

- **Erref:** ARR-149/013
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

18 urterekin, Mala kaleko jostun batekin hasi zen aprendiz moduan. Bi urte egin zituen jostintzan, eta, gero, oihala mozten ("corte") ikasteko Rosi Larrañaga jostunarekin aritu zen urtebetez.

6. Etxeko jostuna

- **Erref:** ARR-149/015
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:13:47. **Bukatu:** 00:14:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Etixerako josi ohi zuen Milagrosek. Galtzontziloak, soinekoak, alkandorak, bonbatxoak, prakak, barruko gonak, etxerako matalak... josi ohi zituen.

7. Kanpazar aldetik botatako bonbak

- **Erref:** ARR-149/017
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:15:14. **Bukatu:** 00:18:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Milagrosek 17 urte zituen gerra hasi zenean. Garai hartan, San Frantzisko kaleko etxetxo batean bizi zen familiarekin. Mendi batek babesten zuen beren etxea, baina pareko etxeetan Kanpazar aldetik botatako bonbak jausi zirela gogoratzen du.

8. Herriko dendak

- **Erref:** ARR-149/020
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:18:58. **Bukatu:** 00:20:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra denboran dendak irekita egoten ziren; "orduan jan faltarik ez zegoen, gero etorri zen errazionamendua". Herriko hainbat denda aipatzen ditu: Kukuena, Garmendia, Zerrajera...

9. Udako egunpasa eta erromeriak

- **Erref:** ARR-149/023

- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:21:22. **Bukatu:** 00:22:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gaztetan, uda partean, Debara eta Kanpazarrera joaten ziren egunpasa. Santa Ageda, Garagartza, Uribarri eta Zigarrolako erromerietara joan ohi zen dantzara.

10. Domeka eta jaiegunetan, zinemara

- **Erref:** ARR-149/032
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:27:20. **Bukatu:** 00:28:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Domeka eta jaiegunetan zinemara joaten ziren; etxeetan ez zegoen telebistarik. Gurea antzokian antzerki eta abeslariak ere izaten ziren.

11. Ferrerías kaleko jaiak

- **Erref:** ARR-149/034
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:28:17. **Bukatu:** 00:30:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Santa Anatan, Ferrerías kaleko jaiak ospatzen ziren. Kaleko mutilak etxerik etxe joaten ziren erromeriarako borondate eske. Herriko beste kale batzuetako jaiak noiz izaten ziren kontatzen du.

12. Inguruko herrietako jaiak

- **Erref:** ARR-149/035
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:30:57. **Bukatu:** 00:31:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Santa Agedako, Bergarako eta Aretxabaletako festetara joan ohi zen lagunekin. Arrasateko bandak Bergarako Pazko jaietan eta Aretxabaletako Ama Birjinetako festetan jo ohi zuen, eta herriko jende asko joaten zen jai horietara.

13. San Frantzisko kaleko etxea

- **Erref:** ARR-149/037
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:33:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

San Frantzisko kalean bizi ziren etxeak bi solairu zituen. Bigarrenengoan, inkilinoak zituzten. Abereak eta ortua ere bazituzten etxe ondoan. Kale horretan bi solairuko sei etxebizitza zeuden.

14. Garai bateko Arrasate

- **Erref:** ARR-149/048
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:38:19. **Bukatu:** 00:41:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Garai batean Arrasate nolakoa zen kontatzen du. Hainbat kale aipatzen ditu: Ferrerías kalea, Erdiko kalea, Agerre kalea... Zigarrolan, San Andresen eta Uribarrin dena baserriak ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com